


Euskal AEko eraikuntzaren sektoreko jarduera % 8,4 hazi zen 2022ko bigarren hiruhilekoan

Aurreko hiruhilekoaren aldean, prezio korranteak % 0,3 jaitsi dira

Euskal AEko eraikuntzaren sektoreko jarduera, prezio korranteetan, 2022ko bigarren hiruhilekoan aurreko urteko hiruhileko berean baino % 8,4 handiagoa izan da, Eustatek landutako datuen arabera. Aurreko hiruhilekoaren aldean, urtaroen arabera ondorioak zuzendu ondoren, jarduerak % 0,3 egin du behera prezio korranteetan.

Euskal AEko eraikuntzaren koiunturako indizea. Urte-arteko aldakuntza-tasa (%)

Jaiegunen eraginetatik zuzendua



Iturria: Eustat. Eraikuntzaren koiunturako indizea

Hiruhileko honetako prezio korranteen urte arteko hazkundea *Eraikingintza* azpisektorearen (% 6,3 igo da urte arteko datuetan) eta, bereziki, *Obra Zibila* azpisektorearen (% 22,6 igo da bigarren hiruhileko honetan aurreko urteko hiruhileko beraren aldean) portaerek eragin dute.

2022ko bigarren hiruhileko honetako sektorearen jarduera aurreko hiruhilekokoarekin alderatuz gero —urtaroen eragina zuzenduta—, indizea % 0,3 jaitsi da balio nominaletan. *Eraikingintzak* hiruhileko arteko % 0,1eko bilakaera positiboa izan du; *Obra Zibilak*, berriz, % 2,8 egin du behera, aurreko hiruhilekoaren aldean.

Euskal AEko eraikuntzaren koiunturako indizea. Aldakuntza tasak (%). Uneko prezioak (p). 2022/II

	Egutegiaren eragina zuzenduta		Desestazionalizatua
	t / t-4	At/At-1	t / t-1
Produkzioaren indizea	8,4	8,2	-0,3
Eraikinak	6,3	5,9	0,1
Obra zibila	22,6	25,6	-2,8
Landunkopuruaren indizea	1,8	2,1	0,5

Oinarria 2015

(p)Behinbehineko datuak

At/At-1: t urteko lehen hiruhilekotik t urteko azken hiruhilekora arteko aldi metatuaren urte arteko aldakuntza-tasa, t-1 urtearen aldi beraren aldean

t / t-1: Azken hiruhilekoaren eta aurreko hiruhilekoaren arteko aldaketa-tasa

Data 2022ko Irailaren 1a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren koiunturako indizea

2022ko bigarren hiruhilekoko landunen indizea, aurreko hiruhilekoaren aldean, % 0,5 igo ondoren, 2021eko bigarren hiruhilekoan ikusitakoa baino % 1,8 handiagoa izan da.

2022KO LEHEN SEIHILEKOKO METATUA

Eraikuntza sektorearen jarduera nominalak % 8,2 egin du gora 2022ko lehen seiuhilekoko metatuan, Obra zibila nabarmen haziz (% 25,6); Eraikingintzan hazkundera neurritsuagoa izan da (% 5,9).

Langile okupatuaren indizeak % 2,1 egin du gora.

Informazio-oharra

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Eurei esker, bigarren hiruhileko indizea laginaren % 86,60ko estaldurarekin kalkulatu da.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

[Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62